

5.EKINNOVA - KANALAK

Banaketari dagokionez, gure produktua kontsumitzailearengana hurbiltzeko une eta modu aproposan hurrengo banaketa kanalak erabiliko doguz: aplikazio bat danez, eskuragarri egongo da App Store-n eta Play Store-n, modu honetan, Apple zein Android gailuak dabezan erabiltzaileek deskargatu ahal izango dabe. Gure bitartekariak App Store eta Play Store izango dira.

Erabiliko doguzan komunikazio kanalak hurrengoak izango dira:

1- Gaur egun Influencer-ak eragile sozial oso garrantzitsuak diranez gure gizarte osoan eta batez ere gazteetan ,gure aplikazioa deskargatzeko aukera emango deutsegu gero sare sozialen bidez ezagunarazteko.Jon Kortajarena eta Frank de la Junglagaz. Adibidez, Jon Kortajarena Greenpeace-gaz elkartu egin zan inguruneagaz dagozan arazoei konponbideak bilatzeko. Horregaitik, ideia ona izango litzateke beragaz kontaktatzea gure produktua sustatzeko. Bestalde, Frank de la junglagaz lan egitea interesgarria izango litzateke bera oso hizlari ona dalako eta gure aplikazioa jendea deskargatzera lagundu ahal deuskulako. Gainera, Frank oso sentsibilizatuta dago ingurumenarekin eta batez ere animaliekin.

Hortaz aparte,Instagrameko kontu eta Youtubeko kanal bat sortuko dogu. Hauetan, argazkiak eta bideoak igo egingo doguz aplikazioaren funtzionamenduari buruzko informazioagaz, gure argazkiak eta tutorialak aplikazioa erabiltzen jakiteko eta sariak zelan eskuratu ahal diran jakiteko informazioagaz.

Esan beharra dago ere, gure Webgunea edukiko dugula. Webgunea EKINNOVA deituko da eta bertan hainbat motatako informazio agertuko da ,esate baterako, nortzuk garen, gure helburuak edo xedeak,programatuta doguzan irteera ekologikoak eta gure instagrameko eta youtubeko kanaletara estekak agertuko dira. Gainera, Ecoembeseko web orrialdean ere atal edo sekzio bat edukiko dugu eta bertan gure sare sozial guztietara eta webgune ofizialeran estekak agertuko dira.

2- Erabiliko dogun beste kanala eskoletara bisitak eta irteerak egitea izango da. Modu honetan, gure proiektua ezagunagoa bihurtzea lortuko dogu gazteen eta baita irakasleen artean. Hau eginez, erabiltzaile barriak eta iraunkorrak lortuko doguz, irteera bakoitzerako aplikazioa eukitea beharrezkoa izango dalako.